

EUSKAL NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN SEKTOREETAN IKERTZAILE GAZTEAK PRESTATZEKO LAGUNTZAK 2015

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak doktoratu aurreko programako sei beka deitu ditu, eta gehienez lau urteko iraupena izango dute.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Kontratuak hamabi hilabeteko iraupena izango du, eta urteko luzapenak egin ahal izango dira, gehienez lau urtera iritsi arte.

Urteko laguntza 16.330 eurokoa izango da, eta horri Gizarte Segurantzaren urteko kuota gehitu behar zaio. Onuradunek, bestalde, 2.000 euroko laguntza osagarri bat izango dute hainbat gastu ordaintzeko: doktoregoetan matrikulatzeko, biltzarretan parte hartzeko, egonaldi laburretarako ...

Lehentasunezko ikerketa lerroak:

Deialdiaren oinarrietako [I. eranskina](#) kontsultatzea gomendatzen da. Eranskin horretan deialdia egin duen Sailaren iritziz estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+b-ko proiektuen zerrenda dago jasota.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- Europar Batasuneko hiritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.
- EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez.
- Hautatutako proiektuan eskatutako titulua izatea. (Kontsultatu [I. eranskina](#))
- Titulu hori lortzeko ikasketak 2011ko ekainean edo geroago amaituta izatea.
- Laguntza atzerrian garatu behar bada, atzerriko hizkuntzaren behar adinako ezagutza egiaztatzea.
- Zehapen administratibo edo penalik ez izatea.

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

Hautagaiaren ardura izango da eskaera [II. eranskineko](#) ereduaren arabera bete eta deialdiaren laugarren atalean deskribatutako bideetako bat erabiliz aurkeztea **2015eko azaroaren 14a baino lehen.**

UPV/EHUko TRAMITEA:

Behin eskaera erregistratuta, UPV/EHUra atxikitako ikertzaileek convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidaliko dute aurkeztutako dokumentazio osoa laguntza eman ez gero alta tramitea errazteko.

Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko:

Aurrez aurre:

Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza
Donostia, 1 - 3. solairua
01010 VITORIA/GASTEIZ

Telefono bidez:

Javier Latorre Guinea
Telefonoa: 945 018251
Faxa: 945 019701
Helbide elektronikoa: j-latorre@euskadi.eus

Informazio gehiago:

http://www.zuzenean.euskadi.eus/ayuda_subvencion/becas-de-formacion-a-jovenes-investigadoras-y-tecnologas-en-el-entorno-cientifico-tecnologico-y-empresarial-del-sector-agropesquero-y-alimentario-vasco-2015/s68-contay/es/